

# «Hezkuntza emantzipazio-tresna baliotsua izan daiteke»

## Leire San Martinekin solasean



Ula I. Busturia  
Arkitektoa eta EHUko irakaslea

Jasotze-data: 2016-10-17  
Onartze-data: 2016-10-21

Leire San Martin Goikoetxeak bitartekaritza artistikoaren eta zinemagintza-programazioaren esparruetan garatu du bere praktika. *Cine\_ilegal* edo *Feministaldia* programen antolatzaile-lanetan ere izan da, hala nola «Bake Ituna» erakusketako pedagogia-plangintza-aren arduradun 2013 eta 2016 urteetan. Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko hezkuntzako lantaldean dihardu gaur egun, arduradun.

Hezkuntzaz, bitartekaritzaz, instituzioaz eta horiek arte garaikidearekin duten erlazioez hitz egiteko bildu naiz Leirerekin. Arkitekturaren hezkuntzan eta akademian oro har, ematen du ikerketa-lanen bitartez eremu kritiko baten ateak ireki direla, zeina gauza berritzailea baita arkitektura-diziplinan. Espazioaren indar politikoa aztergai izatea dakar horrek, arkitekturaren ekintzaren ikuspegi soziala eta politikoa berreskuratzea hain zuzen ere. Artearekin beste hainbeste esan zitekeen. Artea eta ikusleria —herritarrak— elkartzen direneko espazioak (erakusketak, museoak edo galeriak) edota edozein programa kultural, gune klabeak izan daitezke pentsamendu eta hausnarketarako.

Leirek arte-hezkuntzaren baitan azken urteetan zabaldu den joera-aldaketaren berri eman dit, arte garaikidearen balio pedagogikoa aldarrikatzen duena. «Museoetan edo arte-erakusketetan, hezkuntzako aktibitateak publiko orokorrari zuzendutako azalpenak emateko prestatu ohi dira, artea “ulergarria” eta kontsumitua izateko kontakizun hegemoniko baten antzera (arteak “egia bat” eraikiko balu bezala). Tradizionalki, museoetako hezkuntzako arloa, arte-erakusketaren atal osagarri bat besterik ez da, erakunde

artistikoak eskaintzen duen “zerbitzu” bat bezala ulertua, eta hezitzailea, itzultzailearen paperan sartua izaten da. Arte-instituzio askotan, artea fast food bezalakoa izatea nahi da. Hau da, publikoa museora joan eta bertako artelanak modu erraz eta azkar batean ulertzeko gai izatea. Esfortzurik gabe, pentsatu gabe eta beste norbaitek edukia prozesaturik emanda, alegia. Baina hezkuntza-praktikaren ikuspegi klasikoa da hori. Arte-erakusketak batek hanburgesa batekin zerikusi gutxi du; liburu baten antz handiagoa du bere funtzionamenduan: irakurketa-gainazal aunitz ditu eta behin eta berriz irakurgarria da, norik bere begirada gaineratuz. XXI. mendearen hasieran, artearen kuratoretza alorretik arte-bitartekariaren rolaren inguruko hausnarketak hasi ziren, Documenta 12-ko hezkuntza-programa horren adibide delarik. Arte-hezkuntzaren helburu sozial eta politikoaren aldarrikapena egin zen kasu horretan, eta bira horri “Hezkuntzaren biraketa” (*Educational turn*) deitu zaiou.

Seguraski, hezitzailearen paper deskafeinatua eta eskaintzen zaizkion lan-baldintza prekarioak artearen indar eraldatzailea gutxieteko bide bat dira. «Publiko emantzipatu eta autonomiadun bat museora gerturatzeko aukeraz pentsatzen badugu, pedagogia kritikoaren balio politikoaz jabetuko gara segituan. Hezkuntzak museoetan duen papera birpentsatu beharko genuke, eta entretenimendurako aktibitateak edota haur txikientzako ekintzak egiteko helburu soila izatetik, hezkuntza tresna emantzipatzaile bezala ulertzea pasa beharko genuke. Publikoa museora gerturatu behar dugu arteaz eta kulturaz hausnar dezan. Hezitzailearen, artistaren eta jendearen artean kokatuko da, artistaren lanaren bidez publikoaren beste egoerekin aberasteko, bere parte-hartze aktiboa sustatuz. Ikuspegi honetan, jendea ez da ikusle kontsideratzen, horretan datza aldaketa nagusi bat.



Irudia ~ Pirati

Artelanaren gainean ez dago azalpen bakar bat, eta jendearen iritziak eta begiradak, artelana bera osatu egiten du. Azken finean, museoek, arte-edukitzaileek eta programa kulturalak oro har, ezagutza partekatze eta ezagutza-sortzaileak izan beharko lukete»

Hezkuntza eta bitartekaritza hitz osagarriak dira. «Kultur bitartekariak objektu artistiko, erakunde, giza testuinguru eta jendearen artean negoziaketa-esparru bat sortzea du helburu. Kultur bitartekariaren praktika zabala da, artearen ikuspegitik jardura sozial eta kulturaletan murgiltzean datza, horrela, hezkuntza kontzeptu politiko ulertzea posible delarik». Adelita Husni-Bey artistaren lana eredu garria da kultur bitartekariaren kontzeptu-aldaketa hau ikusgarria egiteko. Adelitak eredu pedagogiko eta didaktikoak erabiltzen ditu kolektibotasuna eta hiritartasunaren inguruan hausnarketa egiteko. Aldiriko azalera eraman diren irudiek adibidez, espazio publikoaren erabilerak eta haren arautzeak sortzen duen gatazka hartzen dute hizpide. Adelitak artikulu batzuen edukiak —irudietakoak— juridiko, aktibista, akademiko eta hiritarrekin konpartitu ditu, eta bakoitzarekin egindako moldaketa eta hausnarketen emaitza grafikoekin erakusketa osatu du.

Tabakalerako web orrialdean irakur daiteke: *Tabakalerako kultur proiektua, eragile eta testuinguru ezberdinekin erlazioan jartzea da*. Bitartekaritza, ikerketarako eta ezagutza sortzeko tresna gisa ulertzen du. «Tabakalera erabaki genuen euskaraz “hezkuntza-programa” deitzea eta gaztelaniaz “mediazio-programa”, biek osatzen baitute erakundeak hezkuntzaren proiektuaz lortu nahi duena, hau da, hezkuntza produkzio kulturalaren sinonimoa izatea. Artearen praktikak loturak sortzeko gaitasuna du, bai komunitatearekin bai hiritarrekin.

Hezkuntza, beraz, Tabakalera erakunde bera birpentsatzeko gailua ere izan daiteke.»

Tabakalerako hezkuntza-taldeak hainbat proiektu abian ditu, zeinek hezkuntzaren ulerpen politikoa praktikara eramaten baitute. «Zenbait lan-ildo planteatu ditugu, elkarren artean elikatzen direnak: batetik, Tabakalera barnean ekoizten den eduki artistikoaren inguruan. “Bisita-solasaldiak” erakusketa artistikoaren ohiko bisita gidatuen formatua gainditzeko saiakera bat da, artelanaren inguruan elkarrizketak sortzeko. “Bisita esperimentalak” ere egiten ditugu, gonbidatu batek erakusketaren interpretazio batetik abiatuta, erakusketari geruza berri bat gehitzeko asmoarekin. Haurrei zuzendutako programak ere baditugu. Ohiko “familia-programa” birpentsatu nahi izan dugu, familiaren identitaterantz jotzeko, “kameleoiak” programaren baitan jorratzen duguna. Hezkuntzaren prozesu luze eta pedagogikoan sinesten dut nik, eta “testu-inguruan” deritzon programa lantalde bat da, hilabetero biltzen garena elkarrekin arte garaikidean sakontzeko tresnak sortzeko modu kolektiboan. Horrekin batera, hezkuntza eta feminismoa, hezkuntza eta espazio publikoa, hezkuntza eta ikus-entzunezko narratibak, hezkuntza eta ikerketa lan-ildoak lantzeko programak ditugu. Menu zabal horrek barne-hausnarketarako baliagarria zaigu, Tabakalera zer den eta nola jartzen den harremanetan komunitatearekin behin eta berriz gatazkan jartzeko balio diguna. Bide horretatik, hezkuntza Tabakalerako tresna bilaka dadin».

===